

Denon artean

Ekintza

NATURA: GURE EGUNEROKO BIZITZAREN OINARRIA

HELBURUAK:

- Natura zaindu beharra dagoela ohartzea.
- Gizakiak eguneroko bizitzan erabiltzen dituen naturako elementuak ezagutu eta aztertzea.

KONPETENTZIAK:

- Ikasten ikasi.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Gizartea eta herritartasuna.
- Norberaren autonomia eta ekimena.

GARAPENA:

Zer jaten duzu? Zer janzen duzu? Zerekin jolasten duzu? Nola babesten zara hotzetik edo berotik? Egin al dizkiozu inoiz galdera horiek zeure buruari?

Saiatuko gara galderoi erantzuten. Ondorengo taulan, proposatutako elementuak identifikatu eta sailkatu egingo ditugu, haien jatorria animalia, landarea edo beste gai bat den kontuan hartuta.

	ANIMALIA	LANDAREA	BESTE BATZUK
Elikadura			
Jantzia			
Jolasak			
Etxebizitza			
Astialdia			

Berehala ohartuko gara kategoria bakoitzean sailkapen gehiago egin daitezkeela. Adibidez, jantziari ari bagara, sailkatu nahi dugun elementua kategoria batean edo batean baino gehiagotan kokatu ahal izango dugu.

Beste aldagai garrantzitsu bat herri edo eskualde bakoitzaren ohiturak eta beharrak dira. Adibidez, etxe bat harrizkoa, adobe-koa, zurezkoa... izan daiteke. Beraz, horrelako sailkapenak erabil ditzakegu edo proposamenak egin parte-hartzaile bakoitzak talde txikietan bere iritzia emateko. Ondoren, ondorioak eztabaidatuko ditugu talde osoan.

Ohiturak aldatu egiten dira denboran zehar, batzuetan beharrak eraginda, bestetan interes komunengatik, partikularrengatik eta abar. Egiatzatu hori zure auzoan edo etxean. Galdetu gurasoei, aitona-amonei edo lagun zaharrei zer jaten zuten eta nola gorde eta kozinatu ohi zituzten elikagaiak duela hogeit hamar urte.

Bazegoen plater aurrekoizaturik? Bazegoen izozkailurik gaur egun bezala? Bazegoen mikrouhin-laberik? Nondik datoz oinarri-oinarrizko jardueretarako materialak, elikagaiak esatebaterako?

Baietz jakin erantzuna. Zure ustez, erantzunak zerikusia du ezagutzen ditugun produkzio-sektoreekin (lehen, bigarren eta hirugarren sektoreekin) edo kontsumitzen ditugun produktuak lantzen dituzten pertsonen lan-baldintzekin?

Gogoeta hori telefono mugikorren, argazki-kameren, ordenagailuen, modaren eta abarren gainean egin dezakegu. Nondik datoz, zerez eta nola fabrikatzen dira?

Ohartuko gara inguruko naturaren egoerak erabat baldintzatzen dituela gizakiaren iragana, oraina eta etorkizuna. Hortik dator gure ingurunea eta natura ezagutu, gozatu eta zaintzearen garrantzia.

Zer ondorio atera dezakegu gogoeta horretatik? Saia gaitezen gai horren inguruko iritzi kolektiboa laburtzen duen esaldi bat adosten taldekide guztien artean.

Gogoan duzue batzuetan iraunkortasunaz, garapen iraunkorraz eta abarrez hitz egiten dugula? Ba al du zerikusirik lehen adostutako ondorioak horiekin?

